

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektua, udaletxeei bideratua dago. Lehenengo Durangoko udaletxera eramango genuke gure proiektua, bertan Agenda 21 proiektuan sartuta daudenez, ingurumenari garrantzi handia ematen diote.



Euskal Herrian turismoa oso garrantzitsua denez, inguruak itxura ederra edukitzea garrantzitsua da. Horrekin batera, kaleko garbitasuna dator eta horregatik gure proiektua gustuko eta gainera kontutan hartuko dutela uste dugu. Gure proiektuarekin, turismoak gora egin ahalko luke, kaleak garbiago eta txukuna egongo liratekelako. Horrekin batera, Durangori on egingo lioke, zenbat eta turismo gehiago erakarri orduan eta diru gehiago irabaziko luketelako hemengo hostalak, tabernak, hau da, negozio guztiak.

Durangon hasiko ginateke proiektuarekin. Udaletxera joango ginateke ea gure proiektuan parte hartu nahi duten. Horrela bada, gure zaborrontziak jarriko genituzke kaleko puntu estrategiko desberdinetan, hau da, erretzaile gehienak egongo diren tokietan; tabernetan, parkeetan, diskoteketan....

Zaborrontzi horiek beteta daudenean gure langile batek batu egingo lukeen eta gure enpresara eraman bertan eraldaketa egiteko. Ondoren, zaborrontzia garbi dagoenean, berriro ere batu duten lekuetara itzuliko lituzkete.



Gure proiektua Durangon ondo funtzionatzen badu, beste toki batzuetara zabalduko genuke. Lehenik eta behin Durangotik gertu dauden tokietara, Elorrio, Iurreta, Eibar, Markina, Abadiño... Eta leku horietan zabaldu ondoren, EAE osora zabalduko genuke.